

MATERIALISMO HISTERIKOA

Mendeku isila



UXUE APAOLAZA LARREA

Zigarrokinak lurrera botatzen dituztenak baino gorrotatuagoak, gaizki birziklatzen dutenak baino areago, liburuak itzultzen ez dituztenak, umeak udalekuetara egun batzuez nonbait aparkatzeko eramaten dituztenak, jatetxeetan, dendetan, igerilekuan... leku guztietan umeak baino areago; gorrotatuenetan gorrotatuenak dira txakurraren kaka jasotzen ez duten maskota-nagusiak. DNAren bidezko sistema bat ere proposatu zen jabe horiei isuna jarri ahal izateko. Ni naiz bat. Maskota-jabea esan nahi dut. Kaka beti jasotzen dut. Nire elkartasun guztia txakur kaken biktimei.

Haur hari, kasu, aita amorratuak lorategitik airean atera zuena, kaka zapaldu zuelako. Printzipioz. Umearen zapatilari begira orro egiten zuen, han-hemen, honekin-harekin, marruskatzen zuenari. Oihuka azaltzen zuen kakarekin maskota-jabeari zer egingo liokeen, nondik sartuko liokeen... Eztula egin nuen, publikoa zuela jakin zezan. "Haurrak daude". Onartu behar dut, ordea, ni ere antzeko ibili naizela, umearen aurrean, petardoak bota dituzten bakoitzean, hamabi mahatsak jan ondoren bereziki; betiko petardoak, neoauroetako su artifizialak, lehenagoko intentsitate baxuagokoak, txakurraren nerbioak pixkanaka aztoratuz joan zitezten... Hori baitzen petardoak nondik sartuko nituzkeen esan bitartean egin nahian ari nintzena, alde guztietatik tirokatzen duten soldadu eroa zirudien txakurra lasaitzea.


Bizkarra arkitzen, begirada umiltzen eta itzuliak ematen ikusten dudanetan, mendeku isil bat irudikatzen dut, uhaletik asko tirata ere espaloiaeren erdian egiten duenean bereziki. Eta pena ematen dit kaka jasotzeak. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

EUSKARA ESKUBIDEAK



ADUR

Zonifikazioa

Mañeruko udalbatzak bat egin zuen apirillean: eremu "ez euskaldunetik" mistora pasatzea eskatu du. Herriko haurren %75ak, adibidez, D ereduan ikasten du. Eskaera onartu ala ez hilabete honetan bozkatuko du Nafarroako Parlamentuak, eta PSNren botoak erabakigarriak izango dira.

Etxebizitza

Bilbon alokairuan bizi den familia bat kaleratzeko eskaera egina du BBVAren higiezin agentziak, baina egoera zaurgarrian daudelako eten du kaleratzea epaileak. Bada, adin txikiko bi semerekin bizi den emakumeari argia eta gasa moztu eta etxea utz dezaten presionatu ditu higiezin agentziak.

Tortura

Frankismoko eta trantsizio garaiko torturak ikertu ostean, 1979tik 2015era Nafarroan izandako tortura kasuak ikertu ditu Kriminologiaren Euskal Institutuak. Garai horiek batuta 1.068 tortura kasu izan dira Nafarroan, institutuak jaso duenez. Nafarroako Gobernuari helarazi diote txostena.